

GERNIKA GOGORATUZ FUNDAZIOA

Sozietatearen izena

Fundación Gernika Gogoratuz/Gernika Gogoratuz Iraskundea

IFK

G48813372

Izaera

Fundazioa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Gutxi gorabeherakoa.

Sorrera

1987ko azaroaren 6an Gernika Gogoratuz elkarteak eratu zen, zientzia-hausnarketaren bitartez munduan oro har eta Euskadin bereziki bidezko bake emantzipatzailea lortzeko xede nagusiarekin. Elkarte horren babespean "Zentro" bat sortu zen, Eusko Legebiltzarrak 1987ko apirilaren 23ko Ohiko Osoko Bilkuran hartutako erabakia betez. Erabaki horren arabera, Gernikan Bakearen aldeko Azterlanetarako Zentro bat ezarri beharra zegoen, bonbardaketaren ikurra eta oroitzapen historikoa iraunarazteko. Zazpi urte geroago, 1994ko abenduaren 15ean, Gernika Gogoratuz elkarteak Gernika Gogoratuz Fundazioa eratu zuen, irabazi-asmorik gabeko kultura-fundazio pribatu gisa, iraunkorra eta mugarik gabeko iraupena izango zuena, eta, fundazioaren baitan, Gernika Gogoratuz Bakearen aldeko Ikerketa Zentroa eratu zen. Fundazioen Erregistroan inskribatu zen [Gernika-Lumoko "Fundación Gernika Gogoratuz/Gernika Gogoratuz Iraskundea" Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeari buruzko Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren 1995eko irailaren 25eko AGINDUA](#) betez.

Sail-atxikipena

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

EJSN

7220 Ikerketa eta garapen esperimentalak giza eta gizarte-zientzietan.

Fundazioaren xedea eta helburua

Eratu zenez geroztik, fundazioaren xede eta jarduera nagusia munduan oro har eta Euskal Herrian bereziki bidezko bake emantzipatzailea lortzen laguntzea da, Gernikako ikurrarekin edo hiriarekin zerikusia izanik zientzia-hausnarketak sustatuta edo babestuta dauden ekarpenen bitartez, horrela 1987ko apirilaren 10ean Eusko Legebiltzarrak Gernikan Bakearen aldeko Azterlanetarako Zentro bat ezartzeko eta horrela bonbardaketaren oroitzapen historikoaren ikurra iraunarazteko onartu zuen Legez besteko Proposamena betetzeko.

Sailkapena kontabilitate nazionalan

Sozietate ez-finantzarioak: pribatuak.

Fundazio-zuzkidura

80.052 €

Fundazio-zuzkiduraren osaera

Gernika Gogoratuz elkarteak bere gain hartu zuen fundazio-zuzkiduraren ardura, 1994ko abenduaren 15ean eratu zen egunean.

Patronatua

Patronatua fundazioaren gobernu, administrazio eta ordezkartzarako organo gorena da, eta bere kontu izango ditu fundazioaren helburuak gauzatzeko beharrezkoak diren kudeaketaren gidaritza eta kontroleko eskumen guztiak. Zehazki, fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak kudeatuko ditu. Honako hauek dira, 2013ko ekitaldiko urteko kontuak egitean, Patronatuko kideak:

José M ^a Gorroño Etxebarrieta jauna	Presidentea. Gernika-Lumoko Udala.
Egoitz Atxikallende jauna	Gernika-Lumoko Udala.
José Ángel M ^a Muñoz Otaegi jauna	EAEko Administrazio Orokorra.
Jon Redondo jauna.	EAEko Administrazio Orokorra.
Eduardo Ruiz de Vieyetz jauna	Deustuko Unibertsitatea.
Jokin Alberdi Bidagure jauna	Gernika Gogoratuz elkartea.
Irune Ondarza Zubia andrea	Gernika Gogoratuz elkartea.
María Oianguren Idígoras andrea	Gernika Gogoratuz elkartea.

2013ko ekitaldiko urteko kontuak

[2013ko abenduaren 31ko urteko kontu laburtuei eta auditoriari buruzko txostena.](#)

2013ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	68.390 €
Ondare garbia	65.666 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk	0 €
Batez besteko langile-kopurua	0

Sozietatearen helbidea

Foru Plaza z./g. - 48300 - Gernika-Lumo (Bizkaia)

Webgunea

www.gernikagogoratuz.org